- "Voilà", hori ez niz oroitzeko... Hastian, hasteko...
- Hastean?
- Hori emaiten zen eta... arropetan. Eta... meza denboran... ehorzketako meza denboran... bazuten... arropa, emaiten zena gainetik, eta "même" kaputxaekilan. Erten zuten "mantoleta", nik uste...
- "Mantoleta"?
- "Mantoleta".

4.9. 'Os Bertrand' deitutako hezur ona

- **Hizlaria(k):** Laborde, Léonie
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-005/008
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:16:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Pasarte honetan, Léoniek denboran auzoan bikote baten artean entzundako elkarrizketa kontatzen digu. Afaltzeko mementoan, emazteak senarrari 'Os Bertrand' deitutako hezurra emateko galdegin zion, zopak zapore gehiago ukan zezan…

Transkripzioa

- "Y'avait la voisine là, pour dîner, elle avait besoin... quelque chose, et son mari, il était en train de couper le cochon: "Erraxü Bernadin, pika zaxü 'Or Bestrand'... 'Or Bestrand' hori." 'Bestrand', "comment on dit ? 'L'Os Bertrand' ?" 'Os Bestrand'? Elle voulait mettre ça au pot de soupe teh, pour dîner.

- Zer da hori?

- Hexurra!

- A, hezurra.

- Hexürra, "oui" !

- Eta zertako, zertako eman diote izen hori?

- "C'était les pa(rents)... les beaux-parents de Louissette, les parents de Léon."

- Bertrand izendatzen zen beraz?

- E?

- Bertrand izendatzen hintzen?

- Izena, Bertrand zuen?

- "Non mais... Bertrand, c'était l'os qui s'appelait !"

-A...!

- "L'Os Bertrand".

- Hezurak bazuen izena, orduan?

- Hexürak... "On aimait beaucoup curer les os !" "Züin erraiten Bernadin ez duela /eztiela/ deuse bario... balio... balio, berri...e... Beha zaxü hor ari denez, urdian pikatzen hor! " "On se rappelle de quelques passages...!"

4.10. Frantsesa eskolan ikasi

- **Hizlaria(k):** Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/008
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolara joan aitzin, ez zekiten batere frantses hitzik garai hartan. Isabellen arabera, orain baino handiagoak ziren eskolara joateko momentuan.

Transkripzioa

- Eta eskolan, frantsesez mintzatzen zineten, ez?

- Isabelle-Louissette: A ba, ba, ba. Eskolan, hastian, hasi gielaik eskuaran... eskolan, ez giniin eskuara bezik mintzatzen! Ez giniin e frantsesik, bateee... Ta geo te, frantsesa ikasi, eskolan. Ta "voilà". Ez zien /etzien/... ez ginen hiru urtetan eskolaat joan, oai bezala!

4.11. Egun bat, meza bat

- **Hizlaria(k):** Suhas, Francois; Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/019
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Isabellek erraten digu denboran Bardozen meza bat egunero iragaten zela, eta jende anitz biltzen zela han. Orain aldiz, Frantxoak dioenez, herriko bestetan jende gehiago elkartzen da.

Transkripzioa

- Eta lehenago, apezek eta, izanen zuten orain baino indar gehiago, ez? Jendea gehiago mezara joaten zen denbora hartan?
- Isabelle: A ba, ba, ba... joan zen, ordüan, egunoz bazen meza, egunoz bazen jendea mezan, mezetan.
- Frantxoak: Oai bada gehio pestetan!
- Bestetan, bai!
- I.: Oai, bon, eta ez da /ezta/ apezik'e oai, eta iandetan hamabostetik beizik meza, eliza bakotxean, eta "voilà".
- Eta meza, zer egiten zen? Frantsesez, euskaraz, gaskoiñez?

4.12. Katixima euskaraz egiteko beharra

- **Hizlaria(k):** Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/021
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Frantsesa bakarrik mintzatzen zirenek frantsesez segitzen zuten katixima. Euskara zekitenak, aldiz, euskaraz egitera behartuak ziren, hala nahi zutelako apezek.

Transkripzioa

- Eta katixima, nola egiten zen?
- Isabelle-Louissette: Eskuaraz eta frantsesez. Eskuaraz, eskuaraz mintzatzen zutenek, eskuaraz. Apezek hala er[ran]... hala nahi zuten.
- Apezek nahi... atxikitzen zuten hori, apezek?
- I.L.: Ba, ba, ba. Ba, ba. Zeen, eskola libroan izan niz, ni, beaz baziin eskuaraz mintzatzen zienak, eskuaraz behar zen katexima eta otoitzak egin. Eta frantsesez bezik ez zakitenek /etzakitenek/ mintzatzen, hek frantsesez zuten. Ba, ba.
- Frantxoak: Dena nahasia da hemen.
- Bai.
- F.: Denetaik bada.

4.13. Lehengo eta oraingo janaria

- **Hizlaria(k):** Suhas, Francois; Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/030
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:18:16. **Bukatu:** 00:19:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Mestura, "turniola" eta horrelako beste etxeko nahasketak jaten zituzten egunerokoan. Orain baino osasuntsuagoak izan behar zutela dio Frantxoak.

Transkripzioa

- Joseph: Eta bola bat esne mesturaekin.
- Mesturarekin?
- Frantxo: Ba, mestura, edo... iten ginien torniola!
- J.: Torniola!
- Zer zen hori, 'torniola'?
- J.: Ogi irina eta arto irina. "Quand on fait la graisse, de cochon..."
- Isabelle.: Urina itien, eta axken... axken... urinaakilan, xigorrak kentzen... iten ziin, eta gio axken zeraakin, eta han iten gindiin arto irina eta arto... eta ogi irina, han eta... iten... iten gindiin torniola...
- J.: Torniola, eta gio [...] emaiten [...] "saladier" hoitaik. Eta geo aatsien, esneaekin, torniola.
- Nahasita? Eta ona zen hori?
- I.: Ona zen, ba!
- F.: Ba... berdin oai bano sanoago zen, segura 're!
- Bai.
- I.: Oaiko 'hamburger'...!
- F.: A e te, hola, hola!
- I.: Oai "hamburger" eta hoitaik da, behar dena, bana leneho ez zen / etzen/ hola! Zopa eta...
- F.: Oai zopa, 'kozina' erraiten duu hemen. Irina presta badia. Han iten dute. Bana etxekoa nagusi da denetaik.

4.14. Arratoia zopa barnean

- **Hizlaria(k):** Suhas, Francois
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/032
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Frantxoak kontatzen digu Marseillan pasatu zuen soldadugoan gertatu zitzaiona, jateko orduan. Denak eltze baten

inguruan jarriarik zeudelarik arratoi ("garratoin") bat ikusi zuten zopa barnean...

Transkripzioa

- Frantxoa: Zerbitzia egin dut han... egin dudalaik, Marseillan, klasak egin ditut /tut/ han, hasi mahainien, zopa. Zopa, "voilà", bana... barnien - nola erraiten da? - garratoin bat bazen!
- Zoparen barnean?
- F.: "Oui" ! Hura ikusi dut!
- Beharbada, gustu ona eman zion...!
- Isabelle-Louissette: Eta beharbaa!
- Erraten dute lapinen gustu bera duela! Ez dakit, ez dut dastatu nik...
- I.L.: Nik ez dut /eztut/... bana bon, "en... en Chine", edo ez dakit /eztakit/ bateen nun... eta jaten dituzte /tuzte/ hoik'e, izigarri ona dela...! Lapin gustia omen du. Te!
- F.: Algerian, [...] han, bildu ginien astia bat...
- Zer hura? Astoa?
- F.: Eta hura...

5. Politika

5.1. Gorriak eta zuriak

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/017
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:39:32. **Bukatu**: 00:42:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Gorriak eta zuriak izaten ziren Bardozen. Zuriak apezan aldekoak izaten ziren eta gorriak apezan kontrakoak. Bere aitak kontatzen zuen zuriak eta gorriak elkar jotzen zutela hauteskundeetan. Jeanek kontseiluan parte hartu izan du eta bietakoak ezagutu ditu.

Transkripzioa

- Gero, erraten dute zenbait tokitan baziela "zuriak eta gorriak"... Baziren hemen ere... gorriak eta...?
- Bazen eta, eta... eta bazen eta... dü... dudaik gabe! Eleksionetan eta, gero zapartakan, ukaldikan...
- Aritzen ziren? Eta zertako ba?
- Ni ez niz...
- Zertako aritzen ziren hola?
- Bah! Eta... bazen apezan... apezan partitian, "le... les blancs", xuriak, eta bazen, beti, apezan kontrakoak! Ez zituzten /etziuzten/ apezak ikus! Bardotzen ai dien... ai, ai, ai! Ze... ez beitzen sekulan mezaa juiten eta... eta mera zen... Bardotzeko mera, eta bazituan adiskide handiak, hori eleksionetan. He, adiskide handiak, hek, meraan alde plantatzen zien eta bazen beste... beste ekipa bat, mezaat juiten zienak igande oroz, eta hek, ez zien unak!
- Eta mera, zer zen? Zuria edo gorria?
- Gorria! Bah, izan die... Egun duk oai dela hogoita lau urte kontseilien, ta pasatu ditiat /pasatutiet/... bon, lehen mera... gorria, bigarrena... xuria, ah,

beste oro xuriak halee. Gorriak finitüik izan die. Oai... pff... pasatia duk [iauko] hori poxi bat. Eztie gazte gehiago... Ba, partitüa bai. Ni [...] lagunak [...] lagunak.

- Eta zer, euskaldunak zer ziren? Zuriak?

- Xuriak gehienak ba.

- Eta gaskoinak?

- Bo... ootaik.

- Orotarik?

- Ootaik. Bazen ootaik.

- Eta zer aritzen ziren? Joka elkarri?

- He! Elekzione... nik eztut ikusi. Bana entzun dut aitari hemen errekontatzen, ordian ezta... ezta oaikoa! Eskaler, eskalerer behera zili... zilipartakan... gizonak [...] gora eskalerer igorten!

5.2. Alemaniarren okupazioa Bardozen

- **Hizlaria(k):** Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-001/020
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:49:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Alemaniarrek egon zirenekoa gogoan du. Bere lagun bat urte eta erdiz preso eduki zuten eta Alemaniara lanera eraman zuten. Jean etxeko ganberan ezkutatua egon zen. Harrapatu izan balute, etxeko denak hilko zituztela dio. Haiek agindutako abereak hil behar izaten zituzten. Pasadizo bat kontatzen du, Hazparnen bi lagun hil zituztenekoa.

Transkripzioa

- Eta...gero... alemanak ere ezagutu dituzu alemanen denborak?

- Hem... eta untsa ezautu... erriten beinien oxtien... egun zaut, egun dela hemen mutiko ... mutil... mutil bat... laun bat, urte bat, bo urte bat eta erdi preso hemen. "La réquisition", "réquisition" [...] izan ginen ene... ene adinekoak, klasa [...] izan ginen eta launak ginen, auzo bat, hor. Ta Alemaniaat "passer le... le conseil de révision", ta hantik zunbeit urte... eunen bürren, "aller en Allemagne", Alemanian juan gindian... "obligatoire". Ta hua ez zen ideia joaiteko. Ein nian Espainian juanen gindela biak elgarrekin... Ba, bana ni, ene klasa, ez eundano galdeina izan, eta hua juan behar galdeina. Erran naxon: "Putá, "oui" [...] egonen niz gordetüik ene etxean, gordetüik egon beharkoik! "Ah diu vivant !". Jin zen, jina hunat eta urte bat et erdiz hor, hemen, ganberan egona duk preso e. Jatekoa [...] gindakon goiti.

- Ez joateko Alemaniara?

- Ez juaiteko Alemaniaat. Ez zen irri... irri eitekoik. Atxeman banute hor, etxekoak denek garbitzen ginduzten eta, edo Alemaniaat juiten. Ez zen irri eitekoik e.

- Eta zer egiten zuten hemen alemanak... alemanek?

- Pua, ddeus! Jan eta edan! Erriten bazuten errekezizionia ...erriten... erriten gindakoten behar zituztela /behartzuztela/ lau behi edo idi, hiltzeko, ah! Merak behar zien atzeman nunbait, lau edo bezaiñ [...] kamiunaekin kargateko lehen jin eta adio e! Ni Hazparnen banitien launak, bah... kusi,

kusiaan, ene kusi baten launak. Joan, "le couvre-feu, huit heures, le soir", eta hek egun... egun zien ostatien zortzi oenak pasatiak. "Ah diu vivant !". [...] kanpoat aleman patruilla bat. Ein dakote keinüik gelditzeko, ez zuten etxeat juaiteko hantik eta borta hortaat! Lasterka abiatu, etxeat sartu nahiz. Biak garbitu zuzten han, garrikaan erdian.

- "Couvre-feu" a ez baitzuten errespetatu?

- Ah, ah... ez beiten, ez zen... oai erriten dute gazteria ez dela atxiiten ahal. E ni jin balite berriz ez [...] hek ez zin gatuik... gatuik, gatuik ez xakurrik e! Garrikan, dena garbi!

- Eta, izan... ez ziren nahasten hemengo jendeekin alemanak?

- "Dià, dià, dià, dià". Bah, bazen zunbeit... pff... emaztekin eiten zutenak. O... ootan bezala, hori bezala ere.

- Eta haurrak hola sortu izan dira hemen?

- "Des prostituées".

- Bai... Eta haurrak edo sortu izan dira hola? Alemanen haurrak, sortu izan dira, hemen?

- Bah... sortu izan ba... Hemen kanpaiñetan halere ez, terrible ez. Bana hiri hoietan eta izan ditu / izantu/ ba, bistan dena duk.

5.3. Alemaniarren behalekua

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/029
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:03:50. **Bukatu**: 01:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena**: Alemaniarrek Bardotzen behaleku bat eraiki zuten.

Transkripzioa

- Alemanak Bardotzen eina zuten, gehienik Bardotzen izan da, hori meria... meria [...] bazen, bazien, "euh... des..." abar... abar batzu oono, "Château Celhabe", hori kakinatia, denak rüinatiak. Eta alemanek, hor Bardotzen ein dute bee, geo bazuten pundu bat eina, surbeillatzeko inguriak, eundano hortako gorena, "la butte de Miremont". Han eina zuten "l'observatoire", surbeillatzeko heian bazenez beste tropaiek [...] zuten geo zeit. Bidaxünen, pff... ez da izan, ez dut, ez dute ukan. [...] interesatzen, dudaik gabe. Oaarren, ez zuten [...]

5.4. Alemanak Bardozen egonak

- **Hizlaria(k)**: Suhas, Francois; Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-006/016
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:08:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena**: Isabellek, Frantxoak eta Josephhek diotenez, alemanak egonak ziren Bardozen gerla garaian, Sala eta Eihartzea etxeetan.

Transkripzioa

- Bardozen berean egon ziren, alemanak?
- Ba, hor, xatoan.
- Non? "Château"an?
- Ba.
- Xatoan, ba. Eta seroretan.
- Seroretan e'.
- Andregai bat bila, seroretan?
- Eta ba, te... "Enfin", ez zen seroraik ordüyan. Ez zen /etzen/ serorik ordian.

6. Lanbideak

6.1. Etxeetako eta dendetako jostunak

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/023
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:51:22. **Bukatu**: 00:53:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Arropa asko egiten zen etxeetan. Oihalak saltzen aritzen ziren batzuk etxez etxe. Baziren jostun profesionalak.

Transkripzioa

- Beztimenda eta orain bezala beztitzen zen? Orain bezala, jantziak eta... orain bezala ziren edo...? Non, etxean berean egiten ziren, erosten ziren?
- Eiten zen "beaucoup" etxen, etxetan. Pasatzen zien eta... "des commis voyageurs", "Dames de France" eta hoiek... Pasatzen zien eun bezala, hi bezala eun, ta baziten liburu handi bat, "avec des, des... des échantillons". Ordien hautatzen zien emazte... emaztekiak beti. Zunbat behar zuten: metra, galtza pare baten iteko eta koxtüma baten iteko edo ze... Ta geo igorten zuten etxeat... "avec la départementale et..." estofa. Ta bazen biziki dendari, eiten zutenak koxtumak eta etxen. Oai, oai bano gehio. Oai ezta gehio hoi.
- Eta etxeetan denek egiten zuten? Edo baziren espresak dendariak...?
- Ba, ba. Dendariak, ikasi zutena ere. Ikasia zutena... zer... ofi...Bah ofizioa ez zen! Guk ukan dugu hemen, kaskoinak [erraiten diote] ez zakiten batee eskuarak, bazuten... hiru aprendiz bazitien... ai zienak lan... lanian. Bazien bortz dendari.

7. Aisia

7.1. Herriko bestak

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/026
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:57:02. **Bukatu**: 01:00:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- **Laburpena:** Herriko bestak Bardotzeko plazan ospatzen ziren. Berrehun bikote ere izaten ziren dantzan. Baziren dozena bat ostatu. Orkestrak jotzen zuen. Herriko gazteriak antolatzen zituen bestak, hogeitun urte betetzen zituztenek.

Transkripzioa

- Bestak-eta egiten ziren?

- Bai, bai, ba. Eta pesta... ba oai bezala, oai bano gehio ba. Bo...

Bardotzeko plazan, elizaan ondoan, pff... eiten du diela berrogoita... ba eta hiutan hogoi urte ere ba. Bazien beharbaa... bo, zonbat behar nuke erran? Berrehun kuple...

- Plazan?

- Plazan, dantzan ai zienak denak! Xaharrak, hiutan hogoi, hiutan hogoi hamar urteko xaharrak eta oro dantzan!

- Denak, zahar eta gazte?

- Ez zen, ez zen baten posatzeko leküik e! [...] izana zienez Bardotzeko plazan, ezta, ezta ttipia. Eta bazen, bon, zonbat ostatu bazien? "B(ü)rüntx, euh... chose... là-bas... au quartier d'Ibarre... le Ttunttur, B(ü)rüntx, Lambert, à la Place y'en avait trois, quatre...". Bazien, Bardotzen, hamar... hamar...ba...ba, dozena bat ostatu! Eta denak bizi. Puf, bee... ostatüko errebenioaekin.

- Eta zer, zer musika egiten zen, izaten zen? Akordeoia edo hola edo...?

- "Dià". Bazen, bai, bai, ba bana bazien sei... sei müsikari e. Or... or... orkestra.

- Eta nork egiten zituen besta horiek? Nork antolatzen zituen besta horiek?

- Herrikoon... e.. gazte, gazteriak. Urten izan... izan niz, oküpatü niz hortaz aski [...] Aurten, hogoi urteko edo hogoita bat urteko klasa bat, helduun urtien, beste... gazteiek berriz, ez sekula berak. Sanja... sanja urte oroz.

- Horiek antolatzen zituzten bestak orduan?

- Bai, bai, bai. Geo, gu merian eta okupatzen gindelakoz, emi... emiten gindien, herri, herriak emiten zien peza bat. Ezta, ordü, ordüko, pff... sosa balin ba... Eman dezaun [...] bost ehün mila [...]. Eta gio, "on lui faisait le feu d'artifice aussi.". Hua, herriak, merak [...] zien. Bah, merak... herriak! Herriak. [...] pesta ederrak eiten zien. [...]

7.2. Elizako abesbatzan kantuan

- **Hizlaria(k):** Vivier, Jean-Baptiste

- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba

- **Erref:** BDZ-001/027

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:00:14. **Bukatu:** 01:02:49

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Elizan abesten zuten abesbatzan, neska zein mutil. Erretorea eta bikarioa izaten ziren. Euskarazko kantuak abesten zituzten eta jaiak aurretik entseguak izaten zituzten.

Transkripzioa

- Kantuz-eta aritzen zineten?

- E! [...] ginden, hasteko elizan. [...] niz, zonbat, berrogoita hamar urte

segurik, elizan. Baginden... ba, berrogoita hamar bat [...], seguriz ee, neskatxa. Eta gu, gizon... ba... baginden, hogoita hamar bat segurik. Oro, [...] ginden denak kantuz, eiten zien, entzun, entzuten, bazter [...] Eta hori apeza okupatzen zien, ba, bazen bikaria... Erretora ta bikaria.

- Zer zen diferentzia erretorea eta... zer zen erretorea eta bikarioa, zer ziren diferente?

- Erretora zen... nausia! Bikariak, eiten zien... erretorak erriten ziena. Eta erre... bikaria, usu, beti ere, okupatzen zen hori "euh... la chorale et... la clique". Klika ere izan da Bardotzen, pff... berrogoita zunbait... Kleronia ta tronpeta ta kordesa eta pff... denak [...] die oai oro.

- Eta kantuak eta mezan, zer ziren? Frantsesez?

- Bo, latin... "du latin"... anhitz, frantsesez ere, eskuaraz ere.

- Eta bertzeenez, kantuak euskaraz eta kantatzen zenituzten? Ezagutzen zenituzten?

- Ba, "et oui"... ezautu behar! Eiten zien errepetizioniak, pff... peste, pestetako, zunbat errepetizione eiten gindien? Par... parti aatseko zortzi oenetan, lan, lanak ein eta, gauerdi oren bat artio! Eta zunbat aldi? Hamar aldi segurik ikasteko kantu bat! Bo...

- Eta... eta elizaz kanpo, bertzenaz, bertzalde, kantuak eta, bertsolaririk edo bazen?

- Ez. Ez, ez. Ez, ez... eliza, elizatik, elizan zen. Bikaria oku... okupatzen zen, gehienetan.

7.3. Ihauteriak Bardozen

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/022
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:33:35. **Bukatu**: 00:35:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Ihauteriak
- **Laburpena**: Etxeko izebek ez zituzten gogoko, jatekoa eta edaria ezkutuan eman behar izaten zieten. Mutilak ziren normalean.

Transkripzioa

- Zuek egiten zenuten ihauteririk edo hemen? Ihauterik?

- Ba, ba, ba, ba. A ba. Ihauteria bazen e! Gu eskolan gindelaik eta heldu zien eta gue eskolako gehienak, eta o la la...! Hemengo ttanttek ez zuten maite e...! A eta guk pena gindien, zeen ta bagindakien nor zien heldu zienak. Bana amak, ikusi gabe emaiten zien... emaiten zakoten arroltziak edo zeit.

- Eta...

- Xokoleta, edo...

- Eta zer... zertara etortzen ziren?

- Heldu zien etxetaat maskekin, eta bon... mintzatzen... mintzatzen zuten, eta zeit... ze... zerbaiten edateko, edo zeit emaiten ahal gindienez, edo... Sosa ez dakit emaiten zenez... Beharbaa...

- Eta kantatzen zuten zerbait, edo...?

- Ez, bo ez, ez hemengo... ez, hori ez niz oroit ez, ez.

- Eta dantzarik eta ere ez?

- A hori ez, ez niz oroit.

- Eta musika?

- Maskak.
 - Maska, bai.
 - Maskak.
 - Eta gero...
 - A hori...
 - Hori gustatzen zitzaizun?
 - Ba! Gizon... mutikuak zien, ez zen neskaik e!
 - Eta zertako ttanttek ez zuten maite?
 - Adina zuten e! Puf, lautan hogoita aita... aitaxiin arrebak. Ez bitakit, beharbaa ez bitzen eiten hen denboran, ez dakit nik zendako ez zuten e...? Ez zien kontent e... jin ziten e... "Mais" amatxi, amatxi aintzildarra, a oroitzen niz hua... hak emaiten zakoten e... zeit, elia... eta amak e.

7.4. Herriko bestak eta kantak

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/023
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:35:17. **Bukatu**: 00:39:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena**: Familiako bazkariak egiten ziren kontu kontari eta euskal kantak abestuz. Besteak lo zeudela jaisten ziren herrira.

Transkripzioa

- Eta gero, bestak, herriko bestak edo izaten ziren?
 - Ba, ba.
 - Eta hor ere, nola izaten ziren herriko besta horiek?
 - Herriko besta? Nik beti oroitzapena dut ordien bazela e... eta familiako bazkaria.
 - Etxeetan?
 - Ba, etxetan. Ta geo Bardotzen, "enfin" bazen "le feu d'artifice"... Eta amak izigarri maite zien, eta heldu zen e... heldu zen e... Uhart otobüsa, Larrondoat xeka. Ta hor kartiereko jendiak joiten ginden haekilan. O! Eta ordien e... bon, ez ginden xe(ka)... ama joanen sei haurrekin, ordien gehiena [...] nintzan, ordien e... isil-isila, juiten ginden denak oheat, eta geo errana bitzataten, eta... bestiak lo... lokartzen zielaik, are, jaikitzen nintzan, eta juiten ginen amaekin! Hamar oonetan edo heldu zen otobüsa Larrondoat, oono ez zen sobera iluna ere!
 - Bai, bai...
 - Beti "le quinze août" zen eta... pestak.
 - Eta gero, erran duzu zure izebak, ttanttek eta aitatzik, kontatzen zituzten istorioak edo hola...? Edo kantuak, edo hola...? Bazituzten?
 - Ba, ba. Bazen ttantta, azkena, hamekaarrena, egona Miarritzen, eta hua diu gehien luzenik eta ezautu. Ba, hua, ba.
 - Eta hark kantuak edo bertsoak, edo... bazizkien?
 - Ba, ba. E... kantiak, eskuaraz kantiak. Aats guziz, jalgitzen ginden baatzeat ttanttaekilan, eta izarrer so, eta kantatzen zien e... ba, ba!
 - Oroitzen zara zer kantu ziren?
 - O la la... ez so(bera)... Ba, ba, ba! "Hiru mutxurdin, bat alarguntsa",

badakit hori bazela. Geo e... "Ikusten duzu goizean". Eta hori beti... beti e... "Ikusten duzu goizean, argia hasten denean, etxe xuri..."...

- "Aitzin xuri bat"...

- "Lau haritz ondoren erdi... ordian"...

- "Xakur xuri bat..."... "non, je sais pas..."... Hasteko, hemen, argi delaik, baduzu borda bat, eta hola, lau haitz ondoren erdian. Eta nik usten nien ttanttak kantatzen ziela etxe... borda hortako istorioa! Ene... ene ideia hola, bana kantu hori betitik e... "Andre Madalen", eta...

- Orduan hori, lehenago bazen, orduan hori, Bardozen lehenago, bazakizkiten jendeek horiek, kanturik, eta...?

- Ba, ba, ba...

- Eta gero hori galdu da?

- Ari zien kantuz ba, gure e... "enfin" amaan ttanttak eta ari zien kantuz, ba.

- Eta ikusi duzu Bardozen, "le feu au cul" dantza?

- Ez, hori ez...

- Ihauterian... Ez?

- Hori ez.

- Ez? Hori berria da?

- Hori ez niz oroit ni...Ihauteriaz etxetik joanik, pesta... pestaan eitea ez, ez niz oroit.

- "Sua dantza"?

- A ez. Plazan berdin hori... Plazako... bana gu, hemen eskolako la... launak zien heldu e... etxeat...

- A, eskolakoak?

- Eskolako...

- Zuen... zuen adinekoak?

- Handio.

- Handiagoak?

- Gu bano handiokoak. Be ta geo heldu zien gue buuz, eta gu niarrez, hartako ere... hartako ere ttanttak e... samurtzen zien, zeen eta gu niarrez ikusteaz e, gue... gue penaz zi... zitien [...] seurraz e.

7.5. Ehiztari izanak

- **Hizlaria(k)**: Suhas, Francois; Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-006/033
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:21:23. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Bardozen "leperia" erraten diote erbiari. Iriberrikoak ehiztariak izanak dira, eta batzuetan oraino segitzen dute. Ahuntz basa da gehienetan atzematen dutena.

Transkripzioa

- Zer da hori, "leperia"?

- Isabelle-Louissette: "Leperia"?

- Frantxoa: Erbia!

- I.L.: Erbia.

- A, erbia?

- F.: Ba. "Leperia" erraiten duu hemen.

- "Leperia"?
- F.: Besteñez, erbia da.
- Eta ihiztariak zarete? Ihiztariak?
- Joseph: Izanak.
- Izanak?
- J.: Izanak. [...]
- F.: Juiten gia oono.
- Eta hemen, zer ihiztatzen da?
- F.: Bihar, joanen gia [...] gabe, ahuntza basa...
- Basahuntza? Bai, badira, badira...
- F. Bo! Bada, bada...
- I.L.: Basaurdia bada zien etxen?
- Bai, bai, baina basahuntza gehiago.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Umetan ia autorik ez inguruan

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/012
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Feriak eta merkatuak egiten ziren inguruan. Umea zenean ez zen ia autorik, pixkanaka-pixkanaka zabaltzen joan ziren auzoan.

Transkripzioa

- Eta gero, merkatura... ba... ez zen merkaturik hemen?
- Ba, ba. Bazen merkataria Bastidan, Azparnen, Peihoaden... nik uste Ahurtin e, aipatzia, nik uste e... bazen zeit... Hasteko feira bazen.
- Eta joaten zineten hara zerbait saltzera, edo...?
- A ba, bildotsak, aatxiak... Bazen otobüsa, heldu zena... Lar... "enfin" kartier... hemen Larronduan, eta juiten zen kortatik aatxia ta remorkan emaiten zen aatxia, ta jendiak otobüsien. Eta otua ukan arte.
- Bai, lehenago, zu gaztea zinelarik, auto guti zen ez, hemen?
- Ba. Guk ez gin... guk e... ez dakit e... beharbaa hamar, hamabi urte, o... aitzak erosi dielaik otua, permisa pasatu dielaik lehenik... Auzuak erran zakon: "Ba! Ez duk se... ez duk... 'en pat(ois)...', frantsesez e - 'tu vas jamais passer le permis ! C'est pas la peine que tu ailles !'". Ta gio, ukan zien, nik uste aski fite, ta geo hua ere joan zen.
- Bai...
- "Mais si toi tu l'as eu, mais moi aussi eh ! Beh alors je vais essayer !" Ta "Voilà"!
- Eta hola pixkanaka...
- Ba, ta geo hiru... hiru etxek hemen bagintien geo otuak!

8.2. Bardoze herria, zabal-zabala

- **Hizlaria(k)**: Laborde, Léonie
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba

- **Erref:** BDZ-005/004
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Lau auzogune nagusi kontatzen ziren lehenengo denboran: 'Ibarre', 'Sarrada', 'Legarre' eta 'Leguine'. Ez badaki zehazki non ziren muga zuzenak, Léoniek dio gaur egun azken bi hauek 'Lambert' eta 'les Tisserands' auzoek ordezkatu dituztela.

Transkripzioa

- Badira kartier aunitz ez? Hemen... Zabala da, ez? "Bardos"...

- Bai, "oui, oui, oui, oui".

- Zenbat kartier...?

- "Y'a quatre quartiers, au moins. Y'a... 'Ibarre', 'Sarrada'... 'quart'... 'quartier des Tisserands'... Y'a 'Legarre' et 'Leguine'... je sais pas au juste, entre ces deux... On dit le 'quartier de Lambert', mais c'est peut-être un quartier... 'Les'... 'Les Tisserands' aussi, on dit... on dit... maintenant. Oh, c'est très vaste eh, au moins !"

8.3. Errekara ur bila

- **Hizlaria(k):** Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/014
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena:** Isabellen senarra oroitzen da denboran erreka joaten zirela, etxeko ura izan aitzin. Kabalak ere hara higitzen ziren, putzu batean zegoen ura edatera.

Transkripzioa

- Joseph: Erreka.

- Bai. Eta hara joaten zineten, ura bila?

- Isabelle-Louissette: Ba, ba.

- J.: Pitxerrekin eta kütxaekin eta... ura.

- I.L.: Ta kaalak 'e... putziak baziin, eta "voilà".

9. Iritziak

9.1. Gaurko eta lehengo bizia

- **Hizlaria(k):** Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/009
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:03:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena:** Nolako aldaketak bizi izan dituzten, hala-nola laborantzian.
Den-dena eskuz egiten zuten: artoa, ogia, mahastia...

Transkripzioa

- Lehenago eta... ainitz sanjatu da bizimodua? Orain eta, lehenago eta...?
- Isabelle-Louissette: Ta sanjatu da ba, bizia!
- Zer da gehiago sanjatu dena?
- I.L.: Ba dena, te! Ez zen /etzen/... ez zen oai bezela... trakteürrik, ez gaiñeatikoik e...
- Dena eskuz egiten zen?
- Dena eskuz, behiekin eta eskuz.
- Eta zer egiten zenuten? Ogia, artoa, denetarik?
- Joseph: Ba, ba...
- I.L.: Ba, denetaik.
- J.: Ogia, eta artoa... eta mahastia, arnoa.

9.2. Biztanlegoaren aldaketak

- **Hizlaria(k):** Suhas, Francois; Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Erref:** BDZ-006/028
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Lehenago, auzoekin baserri lanetarako elkar ikusten zuten. Orain aldiz, ez dute harreman hori atxiki, eta bardoztarren erdia ez dute gehiago ezagutzen. Errugbi taldean ere, ez dutela nehor ezagutzen diote.

Transkripzioa

- Lehenago, jendeak laguntzen zuen gehiago, ez?
- Isabelle: Ba, ba, ba. Ez da/ezta/... ez zen /etzen/ oai bezala e! Auzoak eta beti elgarrekin gindien eta...
- Frantxoa: Hemen bada, Bardotzen, ez duu /eztuu/...ze, jendeean erdia ezagutzen gehio... Denak atea tie... Ina die...
- I.: "Lisette! Oh la la...!"
- F.: Hiritik, eta...
- Bai, kanpotar anitz bada sartua.
- I.: A, ta ba. Bardoz... Bardotzeko jendeik ez da /ezta/... ez da... kasik [...]
- F.: Ba, diela hamar bat, hamabortz bat urte, ibiltzen ginian, rübia bazen Bardotzen, eta bagindiin ilobak eta hola aitzina... Bana oai ez duu /eztuu/ ezagutzen nehore gehio!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Bastidan sortu, Bardozera itzuli (BDZ-007/002)

Gurasoak bardoztarrak zituela erraten digu Yvonnek. Aita bidezaina Bastidan izendatu zutelarik, familia hara joan zen bizitzera. Berantago, Bardozera itzuli ziren, amarengandik ondoriotasunez ukan zuten etxera.

2. Ibarre auzoko hiru etxeetatik (BDZ-007/003)

Yvonnen ama ez zen ondoriotasunez ukan zuen Ibarbidea etxean sortu, baizik eta Jemenea deituriko etxean. Aita aldiz, Iratxeta etxekoa zen, Errekaldea etxetik hurbil.

3. Bastida ez da euskalduna (BDZ-007/004)

Bastidan zirelarik, Pervòst deituriko etxean egon ziren. Etxe honen izenak erakusten du herri horretan gaskoi hizkuntzak duen tokia. Yvonnek dio ez dela euskalduna Bastida.

4. Lau ahizpa (BDZ-007/005)

Lau ahizpa zirela dio Yvonnek: bera ahizpa biritxi batekin sortua eta beste bi neska.

5. Etxeko lanak amak eginak (BDZ-007/006)

Zortzi urte zituelarik Bardozera itzuli zirelan erraten digu Yvonnek. Haren aita kanpoan lan egiten zuen. Ama aitzitik, etxeko lanetan aritzen zen.

6. Donapaleura josten ikastera (BDZ-007/007)

1939an, Donapaleu hirira joan zen Yvonne josten ikastera. 1945ean bururatu zuen bere irakaspena. Garai hartan, sartu zen, ustekabea, Erresistentzian.

7. Senarrak euskaraz ez zekien (BDZ-007/009)

Yvonnen senarra 'Assitance Publique' erakundekoa zen, eta zazpi hilabeterekin Bardozeke familia batean ezarri zuten. Jarri zuten familian gaskoia baizik ez zekiten. Horregatik, euskararik ez zuen ematen.

8. Hirueletasuna (BDZ-007/011)

Hirueleduna dela dio Yvonnek, euskara, gaskoia eta frantsesa dakizkielako. Euskara aita-amarekin ikasi zuen, eta Donapaleun egon zelarik ondu.

9. Biritxiarekin euskaraz (BDZ-007/012)

Ahizparekin euskaraz egiten dutela dio Yvonnek. Inguruetakoz zaharretxeetara joaten delarik, egoiliar pozik daude harekin euskaraz egiteagatik.

10. Bastidako lehenbiziko euskaldun bakarrak (BDZ-007/013)

Gaskoia Bastidan ikasi zuen Yvonnek, han egon zelako txikitan. Gehitzen du ez zela euskaldunik denboran hartan Bastidan. Bere gurasoak lehenbizikoak zirela dio.

11. Bardoztar guziak euskaraz (BDZ-007/014)

Oroitzen da Yvonne Bardozen erro zaharrak zituzten familia guziak euskaldunak zirela. Kristau ikasbidea euskaraz egiteko ahala bazuten euskaldunek.

12. Bardozeko euskara, gaskoiarekin nahasia (BDZ-007/015)

Bardozeko euskara ez dela garbi-garbia iruditzen zaio Yvonneri. Aski nahasia da hizkera hau, gaskoiarekin nahasia hain zuzen.

13. Euskaldun elebakarrak vs. Gaskoi elebakarrak (BDZ-007/016)

Gehienek euskaraz bazekitela dio Yvonnek. Aldiz, euskaldun bai eta ere gaskoi elebakarrak zirenak bazeuden. Lortzen zuten elkar konprenitzen, 'ahal bezala'...

14. Bi katixima (BDZ-007/018)

Bi kristau ikasbide zirela dio Yvonnek, bata frantsesez, bestea euskaraz. Bi gurasoak euskaldunak zirelarik, haurrek euskaraz egin behar zuten katixima.

15. Euskara apalduz Bardozen (BDZ-007/019)

Familia gehienetan euskaldunak ziren. Orain aldiz, anitz galdua da hizkuntza Bardozen. Yvonne bezalako zahar batzuk badakitela oraindik pentsatzen du.

16. Xarnegu herrialdea, nahastekaren tokia (BDZ-007/021)

'Xarnegu herrialdea ez dela deus erraten du Yvonnek. "Zernahi" dela dio, "nahasteka"...

17. Zertifikata ondotik barnetegira (BDZ-007/022)

Hamalau urte arte egon zen eskolan Yvonne. Zertifikata 1935ean eskuratu ondoan, Angeluko serorek zeukaten 'Le Refuge' barnetegira joan zen bizitzera gazte denbora osoan.

18. Alemanak Donapaleutik partituak (BDZ-007/028)

Guda bururatu zelarik, Yvonne Donapaleun zegoen alemanak partitu aitzin egin zuten desfilean.

19. Hirueletasunetik elebakartasunera (BDZ-007/035)

Bere senar zenak gaskoia aise mintzatzen zuela dio Yvonnek. Bardozen, jendeen erdia euskalduna zela erraten du, beste erdia gaskoia zelarik. Orain aldiz, bi mintzairak apalduz doaz.

20. Zerria etxean hiltzen (BDZ-007/040)

Zerria etxean berean hiltzen zuten Ibarbidean, etxe anitzetan bezala. Denboran, André bere senarrak gaskoiz 'la meit' deitutako ontzi berezi bat fabrikatu zuen, zerria ur irikinean bustitzeko.

21. Bardozeke gaskoia eta euskara itxuragabetuak (BDZ-007/041)

Yvonnen ustez, Bardozen mintzatzen den gaskoia itsusia da. Euskara aldiz, txarra. Gaskoia basa mintzaira bat baizik ez dela dio berak, euskara aitzitik egiazko hizkuntza bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com